# O·06 Aukerak aztertzen: STEM lanbide eskatuenak



**Kurtsoa/Maila**
4. DBH
1. Batxilergoa

**Datak**
2026 Urria - 2027 Maiatza

**Hizkuntza**
Euskara, Gaztelania

**Irismen geografikoa**
Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

**Jarduera ematen duen erakundea**
AYESA DIGITAL

Bigarren Hezkuntzako 4.mailako eta Batxilergoko 1.mailako ikasleen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko, ikastetxeak Ayesa enpresaren pertsona aditu bat izango du gelan, bertaratuta edo online. Lanbide-orientazioaren ikuspegitik, ikasleek STEMen egungo eta etorkizuneko lanbide eskatuenak zein diren jakingo dute, eta aldi berean azalduko dituzte beharrezkoak diren unibertsitate-ikasketak edo lanbide heziketako ikasketak. Horrela, ikasleek enplegagarritasunaren ikuspegi zehatzagoa eta errealagoa izango dute, kasu errealen bidez.

## Baliabideak

**Baliabide materialak**
Jarduera egiten den ikastetxeko gelak ordenagailua, proiektagailua eta Interneterako konexioa izan beharko ditu.

**Baliabide ekonomikoak**
Ez dira behar.

**Informazio gehiago**
ibermaticaindustria.com

## STEM Deskribatzaileak

**STEM 6**

GARAPENA

## Garatze fasea

Adituak lanari ekiteko, labur-labur azalduko du zer diren enpresaren lan-ildoak, zer ibilbide profesional izan duen eta zer funtzio bete dituen.

Ikasleei orientazio profesionala emateko, STEM lanbide eskatuenak azpimarratuko ditu, eta, aldi berean, lanpostu horietarako zer ikasketa mota beharko liratekeen azalduko du. Oso ohikoa da ikasle batek gradu edo ziklo jakin bat ezestea, arlo jakin batean gaitasun nahikorik ez duela uste duelako, eta, beraz, uste horiek apurtzen saiatuko da.

Ayesatik uste da merkatu zientifiko-teknologikoa erakargarria dela eta hazten jarraitzen duela, baina, aldi berean, gero eta zailagoa da eskatutako beharretara egokitzen diren profilak aurkitzea.

Horregatik, enplegagarritasunarekin zerikusia duten kontzeptuak jakinaraziko dizkiete ikasleei, eta lekua utziko dute bokazio horiek genero-ikuspegitik bultzatzeko, estereotipo konbentzionalenak desmitifikatzeko.

## Ikasgelan integrazio fasea

Ikasleek taldeka gogoeta egingo dute ikasitakoari buruz, eta jarduera baloratuko dute.